

2017/2018

**Emakumeon
Jabekuntzarako** eta
Berdintasunerako Eskola

**Escuela para la Igualdad
y el Empoderamiento**
de las Mujeres

[f Berdintasuna.Igualdad](https://www.facebook.com/Berdintasuna.Igualdad) [@VG_berdintasuna](https://twitter.com/VG_berdintasuna)




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2017/2018 ikasturtean, **67 jarduera** egin dira guztira, aurreko edizioan baino 6 gehiago, eta aurreko ikasturteetako ohiko formatuei eutsi zaie: hitzaldiak, zineforuma, irakurle-klubak, ikastaroak eta lantegiak. Gainera, Editatoia jarduera sartu dugu aurten, LGTBI kolektiboak Gasteizen duen ikusgarritasuna lantzeko ekimena. "Bestelako formatuak" atalean, eskola irekitzeko eta ixteko ekitaldiak sartu ditugu.

Jarduera mota	Jarduera-kopurua
Lantegiak	45
Hitzaldiak	9
Zineforumak	6
Irakurle-klubak	3
Lantegi-dokumentala	1
Editatoia	1
Bestelako formatuak	2
Guztira	67

Grafiko honetan ikus daitekeenez, ikastaroetan eta lantegietan biltzen dira jarduera gehienak (% 67), eta hitzaldietan (% 13), zineforumetan (%9), irakurle-klubetan (% 4), eskola irekitzeko eta ixteko ekitaldietan ("bestelako formatuak" etiketaren pean, % 3), lantegi-dokumentalean (% 2) eta Editatoian (% 2) banatu da gainerakoa.




Ildo estrategiko hauei jarraikiz antolatu dira jarduerak:

- Feminismoak
- Identitatea, subjektibotasuna eta balio-aldaketa
- Kulturartekotasuna eta elkartasuna
- Komunikazioa eta trebetasunak
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa
- Kultura berdefinitzea
- Genero-ikuspegia
- Sexu- eta genero-identitateak

Ildo estrategiko mota	Ildo estrategikoen kopurua
Feminismoak	17
Identitatea, subjektibotasuna eta balio-aldaketa	13
Kulturartekotasuna eta elkartasuna	9
Komunikazioa eta trebetasunak	8
Indarkeriaren prebentzioa	7
Kultura berdefinitzea	6
Genero-ikuspegia	5
Sexu- eta genero-identitateak	2
Guztira	67

Ildo estrategikoekin, argiago identifika dezakegu zein gai landu diren, bai eta ekintzen plangintzaren atzeko xede estrategikoak zein diren ere; beti ere, ulerturik ez dagoela muga zorrotzik batzuen eta besteen artean. Izan ere, **ildo guztiak elikatzen dute elkar, ezarritako xedek lortzeari begira**. Guztiak bil litezke "Feminismoaren" edo "Genero-ikuspuntuen" barruan, eta era berean esan liteke guztiak lantzen dutela balio-aldaketa.



Ildo estrategikoen arabera, datu hauek eman ditu jardueren azterketak: Jardueren % 25 dagokio "Feminismoak" ildo estrategikoari; jardueren % 19k dauka zerikusia "Identitatea, subjektibotasuna eta balio-aldaketa" ildoarekin; jardueren % 13 egin dira "Kulturartekotasuna eta elkartasuna" lan-ildoaren baitan; "Komunikazioa eta trebetasunak" lan-ildoak jardueren % 12 hartu du; ekintzen % 11 izan dira "Emakumeen aurkako indarkerien prebentzioa" ildokoak; "Kultura berdefinitzea" kategoriak jardueren % 9 hartu du; "Genero-ikuspegia" ildo estrategikoan bildu dira jardueren % 8, eta, azkenik, jardueren % 3 dagozkio "Sexu-eta genero-identitateak" lan-ildoari.

Parte-hartzea


Jarduera mota	Jarduera motaren araberako bertaratzeak
Tailerra	766
Hitzaldiak	726
Zineforumak	159
Lantegi-dokumentala	120
Irakurle-klubak	60
Editatoia	17
Bestelako formatuak	240
Guztira	2088

Jarduera guztien parte-hartzeari dagokionez, azterketak dio **2.088 bertaratze** egon direla, aurreko ikasturtean baino askoz ere gehiago (1.734).


Datuok jarduera motaren arabera aztertzen baditugu eta aurreko urteko datuekin alderatzen baditugu, honako hau ikus dezakegu:

- ✓ Hitzaldiak: 726, iazko 567en aurrean; 159 pertsona gehiagok hartu dute parte, eta eskolaren erreferente gisa sendotu da herritar guztiei zuzenduriko gune hau.
- ✓ Lantegiak: Hainbat lan-tegi eskaini dira, eta, guztira, 766 pertsona inskribatu dira horietan.
- ✓ Zineforuma: 159 lagun bertaratu dira; iaz, 322 izan ziren (hau da, 163 pertsona gutxiago aurten).
- ✓ Lantegi-dokumentalera 120 pertsona bertaratu dira.
- ✓ Irakurle-klubak. Hiru klubetan bete dira leku guztiak (gaztelaniazkoak eta euskarazkoa).
- ✓ Editatoian, 17 pertsonak hartu dute parte.
- ✓ Eskola irekitzeko eta ixteko ekitaldietan, 240 lagun bertaratu dira; programazioko bi une giltzarri gisa finkatu dira.

Zenbakiei oro har begiratuta, aurten iaz baino 354 pertsona gehiago bertaratu direla ondoriozta dezakegu.



Adin-tarteen arabera (Inskribatutako pertsonak)




Oharra: Lantegietan izena eman dutenen inguruko datuak dira hauek; ez dakigu jarduera irekietara (hitzaldietara eta zineforumetara) bertaratu direnen adina.

Adinaren arabera asistentziaren grafikoan ikus daitekeenez, 16tik 24rako adin-tarteari (165) dagokio asistentziaren ehuneko handiena, guztizkoaren % 28 izan baita. Horietatik, unibertsitateko ikasleak izan dira

133 (geroko taulan xehetasun handiagoz ikus daiteke). Ikasle horiek eskola-orduetan joan dira EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean eskaini diren lantegietara.

Bertaratze-kopuru handiena duen hurrengo adin-tartea 35etik 44ra artekoa da, guztizko parte-hartzearen % 20 hartzen baitu (115 parte-hartzaile). Ondoren, 45etik 54ra arteko adin-tartea dugu, % 18 (108 parte-hartzaile), eta, azkenik, 25etik 34ra arteko eta 55etik gorako adin-tarteak datoz, % 16 bietan (94 eta 95 parte-hartzaile, hurrenez hurren). Amaitzeko, 11 pertsonak ez dute atal hau erantzun.

Aurreko ikasturtean, 31tik 54ra arteko adin-tarteak hartu zuen ehuneko handiena (% 52), baina datuok ezin daitezke gaur egungoekin alderatu, adin-tarteak ezberdinak direlako. Ekitaldi honetan, xeheago bereiz ditzakegu adinari buruzko datuak, eta zenbait adin-tarte sortu ditugu 31tik 54ra arteko tarterako. Horrela, alderdi honen gaineko ikuspegi argiagoa eduki dezakegu.



Taula honetan, argiago ikus daitezke adin-tarteak, lantegi bakoitzaren inskripzioari dagokionez:

Jarduera mota	Baliok						Erantzun gabekoak
	< 16en batuketa	16-24ren batuketa	25-34ren batuketa	35-44ren batuketa	45-54ren batuketa	> 55en batuketa	
Piztu zure ahotsa				4	7	2	
Lesbianismo politikotik borroka transfeminista interseksionalera: oinarrizko testuak, eztabaidak eta egungo erronkak			2	1	4	2	1
Idazten dut, beraz, banaiz. Fikzio autobiografikoa			1		3	4	
Feminismoa: bizitza eraldatzeko istorio inspiratzailea			3	5		3	

Nire gorputza, nire lurraldea			3	2	1		1
Perkusioatzen		2	3	7	3	3	
'Feminist Agenda euskal literaturan' irakurle-kluba				1	2	5	
'Ordu bioleta I' irakurle-klub feminista					4	12	
'Ordu bioleta II' irakurle-klub feminista		1	4	2	1	4	
Gaztelaniaren irakaskuntza atzerriko hizkuntza gisa (ELE), genero ikuspegitik			4	1	6	1	
Gor komunitatea eta feminismoak: borrokan sinergiak eraikitzen (gorrak)		3	5	5	1	3	2
Gor komunitatea eta feminismoak: borrokan sinergiak eraikitzen (zeinu- hizkuntzaren interpreteak)		1	5	2			
Emakumeentzako autodefentsa feminista (hastapena)		3	5	3	4	2	1
Jendaurrean hitz egiteko teknikak (gaztelaniaz)		1	2	2	4	2	
Amen artean			1	2	3		
Emakumeentzako autodefentsa feminista (gaztelania)		1	7	4	2	2	1
Perkuneskak elkartek ateak irekiko ditu			1		2		
Burundanga: genero kontu bat		3	1	2			1
Bakea eraikitzen duten emakumeak			3	2	3	1	
Emakumeentzako autodefentsa feminista (euskaraz)		9	5	1			
Artea, feminismoa eta lesbiana izatea ikus- entzunezko arteetan		1		3	2	1	
Editatoia sexualitateen, generoen eta desio askoren inguruan Gasteizen			4	3	3	2	

Generoa eta kulturartekotasuna (1. taldea, euskaraz, Lehen Hezkuntza 31)		5					
Generoa eta kulturartekotasuna (2. taldea, gaztelaniaz, Lehen Hezkuntza-Haur Hezkuntza)		27					
Generoa eta kulturartekotasuna (3. taldea, euskaraz, Haur Hezkuntza 31)		31	3	1			
Generoa eta kulturartekotasuna (4. taldea, euskaraz)		15					
IKUS-ENTZUNekintza: sormen grafiko eta bisualeko aktibismo-lantegia			1	11	6	3	
Autodefentsa ziberfeministarako kita			2	5	4	1	
Nola txertatu genero ikuspegia esku-hartze sozialean			4	3	1		
Oinarrizko errentaren inguruko hausnarketa feministak		1	2	2	2	5	1
Gizonentzako clown desjabetzailea (Galtzen ikasten)			3	5	2		
Zein toki du zaintzak gizartean?		2		1	4	3	
Jendaurrean hitz egiteko teknikak		1	3	1	3	1	
Bidaia soinetan barna: ahotsaren, gorputzaren eta zentzumeneren antzerkiaren bidezko talde-sorkuntza			1	5	4	6	
Mugitzen nauten emozioak, <i>deepdance</i>			2	1	8	2	
Emakumeen Etxeak Saharako kanpalekuetan			4	6	2	2	2
Maskulinitate hegemonikoa; esperientziatik abiatutako hausnarketa (euskaraz)		44					

Maskulinitate hegemonikoa; esperientziatik abiatutako hausnarketa (gaztelaniaz)		11	2				
Pausoz pauso, bidegileok		3	3	14	4	1	1
Umorea, generoa eta emozioak				2	4	7	
Piztu zaitez, burujabetzarako elektrizitatea lantegia			1	3	3	3	
Generoa, aniztasun funtzionala, zapalkuntza hirukoitza eta norberaren gorputzaren kontzientzia			2	1	1	6	
Feminismoa mugetan			3	2	5	5	
Guztira		65	5	15	08	4	11

Sexuaren arabera

Sexuaren araberako bertaratzeak	
Emakume-kopurua	1.787
Gizon-kopurua	301
Guztira	2088





Jardueretara bertaratu diren gizonen ehunekoa % 14koa da, aurreko ikasturtean baino puntu bat handiagoa (% 13). Horietatik, EHUko Hezkuntza Fakultatean maskulinitateen inguruan antolatu diren lantegietan hartu dute parte % 22k (66).

Gizonei zuzendutako lantegi bakarra egin da, "Clown desjabetzailea", eta, bertan, 12 gizonek hartu dute parte.

Hizkuntzaren arabera


Hizkuntza	Hizkuntzaren araberako bertaratzeak
Gaztelania	1.468
Euskara	282
Euskara / gaztelania	275
Gaztelania eta zeinu-hizkuntza	63
Guztira	2088



Hizkuntzaren eta sexuaren arabera bertaratzeak	Gaztelania		Euskara		Euskara / gaztelania		Gaztelania eta zeinu-hizkuntza		Guztira
	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	
Emakume-kopurua	% 71,1	1468	% 11,6	282	% 14,2	275	% 3,1	63	% 100
Gizon-kopurua	% 65,8	1468	% 24,9	282	% 7,0	275	% 2,3	63	% 100
Guztira		1468		282		275		63	2088

Eskolaren jardueretan parte hartu duten gehienek gaztelaniazko saioak hautatu dituzte. Guztira, 1.468 parte-hartzaile izan dira gaztelaniazko jardueretan (guztizkoaren % 70etik gora), iaz baino pixka bat gutxiago (% 73).

Euskarazko jardueretan parte hartu dutenak, berriz, 282 izan dira (% 13,5), iaz baino pixka bat gutxiago, guztizkoaren % 19 hartu baitzuen euskarazko jardueren parte-hartzeak iaz. Hein batean, bertan behera geratu diren bi lantegiak euskaraz emango zirelako gertatu da beherakada hori.



Honako hauek dira euskaraz eskaini diren jarduerak:


- Bi hitzaldi:
 - Feminismoa eta eraldaketak politikan Mari Luz Esteban
 - Feminismotik literaturaren plazara sartu ginenekoa Danele Sarriugarte
- Zineforuma:
 - Gabrielle. Jatorrizko bertsioa ingelesez, euskarara ekarria
 - Thérèseren bizitzak Jatorrizko bertsioa frantsesez, euskarara ekarria
- Irakurle-kluba: Feminist agenda euskal literaturan
- Emakumeentzako autodefentsa feminista
- Lau lantegi:
 - Burundanga: genero kontu bat
 - Generoa eta kulturartekotasuna (3 talde)
 - Jendaurrean hitz egiteko teknikak
 - Maskulinitate hegemonikoa; esperientziatik abiatutako hausnarketa
- Bertan behera geratu diren lantegiak:
 - King lantegia
 - Euskal kantak

Azkenik, lantegi bat euskaraz eta gaztelaniaz egin da (elebidun): Ate irekiak: Perkuneskak. Hala ere, ez dugu modalitatearen arrakasta edo arrakastarik eza baloratzeko iritzirik jaso.

Gainera, zineforum guztietan adierazi da eztabaidak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin zitezkeela; horrela, batzuek euskaraz egitea ahalbidetu da.

Lehen aldiz parte hartu duten pertsonak (Jaso diren balorazioak)


¿Participa por primera vez?	Respuestas
SI	255
NO	285
NC	48
Total general	588



Aurten Eskolako jardueretan parte hartu dutenen % 43k lehen aldiz egin dute, iaz baino gehiagok (% 36). Bestalde, bertaratu direnen % 49k ez zuten lehen aldiz eskolako jardueretan, iaz baino 12 puntu gutxiago (% 61). Kontuan hartu behar da % 8k ez diotela galdera honi erantzun (48).

Lantegien berri edukitzeko bideak

Informazio-bidea	Erantzunak
Harreman pertsonalak	151
Liburuxka informatiboa	166
Buletin elektronikoa	81
Sare sozialak	29
Beste batzuk	208
Guztira	635



Jardueretan parte hartu dutenek lantegien berri nola eduki duten aztertzen badugu, parte-hartzaileen % 26k jardueraren programazioa liburuxka informatiboaren bidez ezagutu dutela ikus dezakegu. Azpimarratu beharra dago, era berean, pertsonen % 24k ahoz ahokotik jaso dutela informazioa; hau da, harreman pertsonalen bidez. Ondoren, sare sozialen bidez eduki dute jardueraren berri % 13k. "Beste batzuk" atalak dauka ehuneko altuena; bada, askotariko bitartekoak biltzen dira hor barruan, baina nabarmendu beharra dago unibertsitatea dela kasuen % 50 ia (208tik 103 pertsona).

Beste informazio-bide batzuk	Erantzunak
Unibertsitatea	103
Gao Lacho Drom ijitoen elkarte	26
Udalaren weba	16
Irakaskuntza	9
Ez du erantzun	8
Irakaskuntzarako gaitasun ikastaroa	6
Udalaren jarduerak	6
ARABAKO GORRAK	4
Hizlaria	3
Lagunak	2
Montehermosoren sare sozialak	2
Perkuneskak	2
Eginaren Eginenez	2
Berdintasunerako Zerbitzua	1
Lankidea	1
Gizarte-etxeetako programazioko jarduerak	1
Lagun bat	1
Udala	1
Arabako Emakume Feministen Asanblada	1
Zuzenean	1

Beste ikastaro bat	1
Ahalduntzeko ikastaroa	1
MUGARIK GABE	1
Eskola ezagutzen nuen	1
Prentsa	1
Lantegia proposatu nuen	1
Berdintasun proiektuak	1
Saregune	1
ADSI	1
Twitter	1
Internet	1
Posta elektronikoa	1
Guztira	208



Guztira, 588 galdetegi jaso dira. Horietan, parte-hartzaileek lantegiekin izan duten asebetetze-maila neurtu da, eta jardueren hainbat alderdi hartu dira kontuan: taldeko giroa, lantegiaren edukia, jasotako informazioa eta tratua, prestatzailearen lanaren balorazioa, lantegiaren balorazio orokorra. Jasotako datuak ikusgarri egiteko, neurtu den alderdi bakoitzak jasotako balorazio-kopurua erakusten da diagrama honetan.



Jasotako balorazioak
Balorazio orokorra
Trebatzailea
Informazioa eta tratua
Taldeko giroa
Lantegiaren edukia


Ondoren, jasotako 588 galdetegien puntuatzeak agertzen dira (1etik 6ra), sistematizatuta.



Jasotako balorazioak
Balorazio orokorra
Trebatzailea
Informazioa eta tratua
Taldeko giroa
Lantegiaren edukia

Goiko grafikoan ikus daitekeenez, oso positibotzat har daitezke bai balorazio orokorra, bai gainerako kategoriak, guztiak baitira 5,4tik gorakoak 6tik.

Valoraciones medias 1ª vez SI, NO y NC (Puntuaciones de 1 a 6)



Jasotako balorazioak

Balorazio orokorra
Trebatzailea
Informazioa eta tratua
Taldeko giroa
Lantegiaren edukia

Parte-hartzaileak lehenengo aldia zuen kontuan hartuz gero, ohiko parte-hartzaileen eta parte-hartzaile berrien balorazioen artean ia alderik ez dagoela erakusten dute datuek.

Trebatzaileek eskolari eman dioten balorazioa eta eskola hobetzeko egin dituzten proposamenak

- Trebatzaile guztiek baloratu dute eskola oso ondo
- Laudorio/kritika/iradokizun/ekarpen nagusiak
 - Bizitza elikatzen eta errazten duen proiektu sendoa
 - Programaren kalitate eta konpromiso feminista, trebatzaileen baldintza ekonomiko onengatik eta antolaketa eta harrera bikainarengatik
 - Beharrezkoa
 - Askotariko programazioa eta gaurkotasuneko gaiak
 - Asko hobetu daiteke, azkenean emakumeen etxea edukitzea lortzen badu
 - "Berdintasuna" zalantzan jartzeko eta ahalduntzea sustatzeko toki pribilegiatua
 - Ezinbesteko proiektua hirirako
 - Arabako landa-eremuko emakumeengana hurbiltzeko edo horien parte-hartzea edukitzeko jarduerak proposatzea sentitu dut faltan
 - Zorionak programazioan gorra sartzeagatik eta beste hitzaldi batzuetan zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzua eskaintzeagatik
 - Oso komunikazio ona, oso antolaketa ona eta tratu ezin hobea
 - Iradoki dezakedan hobekuntza bakarra zera da, kontuan har dadila trebatzaileak prekario bizi garen emakumeak izan gaitezkeela (amaitzean ez kobratzea eta dirua aurreratu behar izatea)
 - Prestakuntza-proposamenean handitu eta hobetu da, Gasteizko emakumeen askotariko sentsibilitateak eta errealitateak txertatu baititu
 - Nahiago nuke hiri gehiagotan egongo balitz
 - Programa interesgarria eta kalitate handikoa, tratu ezin hobea eta apustu politiko oso indartsua eta beharrezkoa
 - Feminismoa emakume ijitoei hurbiltzeko modu baliagarria; beharrezko ikusten dugu eskolak hazten jarraitzea
 - Programazio zabala eta aberatsa duela iruditzen zait
 - Espazio propioa bota dut faltan, nahiz eta Villa Suso ederra izan

Zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzua

Zeinu-hizkuntzan programatu diren lantegiez gain, Eskolak zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzuarekin grabatu ditu irekiera- eta itxiera-ekitaldiak eta hitzaldi guztiak. Ondoren, azpitoluak jarri zaizkie grabaketei, zeinu-hizkuntza ulertzen ez duten gorrek ikusi ahal izan ditzaten.

Gainera, ikastaro eta lantegi guztietan eskaini da zerbitzu hori, baina ez da batean ere eskatu.

Hurtzaindegia

Jarduera guztietan eskaini da hurtzaindegi-zerbitzua, eta "Bakea eraikitzen duten emakumeak" lantegian bakarrik erabili da.

Elkarteen eta kolektiboen laguntza:

Eskolak hainbat kolektibo eta elkarteren laguntza jaso du:

- Arabako Emakumeen Asanblada
- María de Maeztu forum feminista
- Bilgune Feminista
- Sidalava-Arabako Hiesaren Kontrako Batzordea
- Ongi Etorri Errefuxiatuak
- 7 menos 20 kolektiboa
- Arabako Gorrak
- APDEMA-Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte eta ASAFES-Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte
- UNRWA Euskadi
- Arabako Amen Elkarte (AMA)
- Perkuneskak elkarte
- Ai Laket!! elkarte
- Mugarik Gabe
- Zentzuz Kontsumitu, Setem Hego Haizea, Medicusmundi Araba eta Mugarik Gabe elkarteek eratutako partzuergoa
- ON:GIZ elkarte
- Saregune
- Gao Lacho Drom elkarte
- Eginaren Eginez elkarte
- Arabako SEADen (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren) Lagunen Elkarte eta SEBNren aldeko Euskadiko Sarea.

Beste erakunde batzuk

- Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (EHU)